

Zuen etxeetan berriro

Postontzian topatuko duzue 1502. zenbakia; itxialdia arintzen hasi den honetan, papereko jardunari berrekin dio TXINTXARRI-K / 16

Amaieraren hasiera

Herriko ikastetxeak 2019-2020 kurtso akademikoa bukatzeko prestatzen ari dira / 6-7

Usurbilgo Lanbide Eskolak 478 maskara eman dizkio Aterpeari eta udalari, herriko dendetan banatzeko / 4

Ostadar Atletismoa eta LOKE Judo, Covid-19ak eragindako egoeraz eta 2019-2020 denboraldiaz / 10-11



ERAIKUNTZAN LAN ASKO DAGO!!
Enkargatuak, Margolariak, Igeltseroak, Pladuristak...

ATE IREKIAK
Ikastetxea ikusteko edo edozein zalantza argitzeko idatzi mezua zuzendaria@eagi.eus helbidera

EAGI
GIPUZKOAKO ERAIKUNTZA ESKOLA
FP CONSTRUCCIÓN GIPUZKOA

Goi maila eta erdi mailako zikloak
ERAIKUNTZA

+INFO www.eagi.eus
943 569 222

Fp
LANBIDE HEZIKETA

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Lasarte-Oriako hainbat ostalari elkartu dira euren egoera ikusarazi eta herrian ekimenak antolatzen. TXINTXARRI

Fase berri baten aurreneko egunak

Komertzio eta denda txiki ugari lanean hasi dira, eta ostalari batzuk ere bai, nahiz eta beste batzuek pertsiana oraindik ez igotzea erabaki duten. Elkartu egin dira asko, eta ekimenak antolatzen hasi: janari bilketa solidarioa egin dute asteon Okendo plazan

Txintxarri

Maiatzaren 24 arte, gutxienez, arinaldiaren lehen fasean egongo da Lasarte-Oria, edo 0,5 fasean, zenbait herritarrek egun hauetan kaleetan aipatzen duten lez. Izan ere, EAEko udalari guztietan bezala, erdibideko fase berri batean sartu da herria, Eusko Jaurlaritzak "neurri zorrotzagoak" ezartzea erabaki baitu: esate baterako, ez

da posible hamar pertsonara arteko bilerak egitea eremu pribatuetan zein kaleetan, tabernetako terrazetan ez bada. Aukera horri heldu diote lasarteoriarrek aste hasieratik, nahiz eta taberna ugari pertsiana oraindik ez duten igo, kanpoan mahaiak jartzeko tokirik ez daukatelako, edo erabaki dutelako lehen faserako ezarritako baldintzetan irekitzeak –mahaien

%50 jartzea gehienez, besteak beste– ez diela konpentsatzen.

Herriko hainbat ostalarik elkartzea erabaki dute, euren egoera nolakoa den ikusarazi eta ekimenak antolatzen hasteko. Astelehenean egin zuten bat, Gurutze Gorriarekin eta udalarekin elkarlanean: janari bilketa solidarioa. "Ez dugu hitzik jaso dugun guztia eskertzeko",



Herritarrek eta elkarteek parte hartu dute janari bilketa solidarioan. TXINTXARRI



Herriko taberna batzuek terrazak jarri dituzte asteon; adibidez, Patriciok. TXINTXARRI

nabarmendu dute antolatzaileek. Asteleheneko eskuzabaltasun erauntsiaren ostean –herritar eta elkarte ugari parte hartu baitute ekimenean–, burua eta bihotza apur bat hoztu eta balantzea egin dute, datuekin: 37 kutxa bete eraman zituzten Gurutze Gorriko kideek, premia duten familien artean banatzeko gero. "Lasarte-Oriako biltegiarekin aski ez, eta Urnietara eraman zituzten zenbait kutxa", adierazi dute ostalariek. Lasarte-Oriako Udalarekin bilerak

egiten hasi dira, egoera aztertu eta aurrera begira egin daitezkeen urratsak aztertzeko.

"Normaltasun berrirantz" goazen honetan, koronabirusak gure artean jarraitzen du. Aste hauetako datuak eskuetan, aldizkari honen edizioa itxi aurretik kasu positibo berri bat egiaztatu dute Lasarte-Oria: 49 guztira. Beterri-Buruntzan, berriz, 199 baieztapen egon dira orain arte; gehienak, Hernanin, 55; Andoainen, aldiz, 46.

Bigarren lan erregulazioa, maiatzaren 18tik aurrera

Michelin Lasarteko 500 langileri eragingo die neurriak, LAB sindikatuak jakitera eman duenez

Txintxarri

Michelin enpresak akordioa lortu du Michelin España y Portugal SAn bigarren lan erregulazio bat ezartzeko. Neurri horrek, Gasteizko lantegiko 3.500 langileri eta Lasarte-Oriako lantegiko 500 behargini

eragingo diela jakinarazi du LAB sindikatuak.

CCOO eta UGT sindikatuek jakinarazi dute, aldi baterako lan erregulazioaren baldintzak, jai egunak, garrantzi bereziko egunak eta bestelakoak,

negoziaketa mahaietan egin diren lau bileretan erabaki direla. Jose Ignacio Leniz Michelingo CCOO sindikatuko idazkari nagusiak EFE Agentziari egindako adierazpenean, gaineratu du "lanpostuak bermatzea" izan dela "lehentasuna", eta "hitzarmen kolektiboan zehaztutakoa errespetatzearekin batera, lanpostuak mantendu eta berrituko direla".

Aldi baterako lan erregulazio berri bat ezartzeko akordioaren "aurkako jarrera" agertu du LAB



Michelin Lasarte lantegia. TXINTXARRI

sindikatuak. Azaldu du soldataren osagarria %80koa izango dela, eta gabonetako eta irabazietako ezohiko pagetan ere eragina izango duela. Hortaz, "kezkatuta" agertu da sindikatua, aurreikusten baitute lantegietako sektorerik zaurgarrienek, "soldata apalenak dituztenek" jasan beharko dituztela, hein handi batean, lan erregulazioaren ondorioak. Gaineratu dute egoera horretan aurkitzen diren langileei enpresak ez diela osagarria igo nahi izan, sindikatuak eskatu badu ere.

Etxeko leihotik lan munduari begira

Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen topaketaren hamabigarren edizioa egin dute asteon, Covid-19ak eragindako egoerari moldatuta: 400 pertsona baino gehiagok jarraitu dute egitaraua Internet bidez. Eremu sozioekonomikoan nola eragin aztertu dute

ñigo Gonzalez Sarobe

Udaltop etxetik: ireki leiho bat lan munduari izan da Udaletako Euskara Zerbitzuen topaketaren hamabigarren edizioaren izenburua. Aldaketa ugari egin behar izan ditu antolakuntza batzordeak, ezinbestean, Covid-19a tarteko: egitaraua goiz bakarrera moldatu dute; hitzaldiak-eta ez dituzte egin Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean; eta, ate bat ireki ordez, leiho bat zabaldu behar izan diote, zeri, eta eremu sozioekonomikoari. Alor horretan nola eragin eta jardun euskaratik, euskaraz eta euskararentzat. Gonbidatuz gain, ia 500 pertsonak hausnartu dute horri buruz euren etxeetatik. Inoizko parte-hartze daturik onenak direla nabarmendu dute antolatzaileek. "Pozarren eta harrituta gaude erantzunarekin".

Jon Sarasua ikerlari eta irakasleak zabaldu du aurtengo edizioa, eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko behar denaren galderari erantzunez. Horren aurretik, euskararen normalizazio bidean egindakoari buruz jardun da. Metafora bat erabili du: "Aizkorriko tontorra da jo-puntua, baina Urbiako lainoan gaude orain". Orain arte ibilitakoak balioan jarri ditu, baina ohartarazi du "argi gorri batzuk piztuta" daudela zenbait alorretan, noraeza dosi bat dagoela horietan, gauza batzuk "birplanteatu" egin behar direla; tartean, lan munduko uhinaldiari nola ekin.

Sarasuaren ustez, "potenzial handia" dauka euskalgintzaren unibertsoak akordio politiko bat erditzeko gai horren inguruan. "Inoiz ez dugu halako baldintzarik izan eskala handiko prozesu batean eta apustu koordinatu batean aritzeko, elkarlanean". Zehaztu du lan eremuan egin beharreko uhinaldiaren apustuak eta inbertsioak izan behar dutela "Guggenheim edo AHTa bezalako egitasmoen parekoa".



Kultur etxean beharrean, GFaren egoitzan egin dute mahai ingurua aurten. UDALTOP

Agirre Lehendakaria Center erakundeko kide Leire Canciok berrikuntza sozialetik behatu dio lan eremuko uhinaldi horri. Uste du pandemiaren ondoren etorriko den errealtateak bide emango diola gizartean "euskararen zentraltasuna" berreskuratzeko. "Biharamuna lantzerakoan, bere tokia beharko du euskarak, erronka globalek tokiko erantzun bat behar dutelako".

Kafea eta gero, mahai ingurua

Pilar Kaltzada kazetariak aurkeztu du Udaltopen hamabigarren edizioa, eta berak moderatu du baita ere mahai ingurua, atsedeneren ostean egin dutena. Kafea Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegian hartu beharrean, norberak bere etxean edan behar izan du aurten.

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politiketako zuzendariak, Leire Okarantza Fagor Kooperatibako Gestio

400 PERTSONA BAINO GEHIAGOK JARRAITU DUTE UDALTOPEN AURTENGO EDIZIOA, EUREN ETXEETATIK

Sozialeko ordezkariak eta Kike Amonarriz Topaguneako presidentek gai hauei buruz hitz egin dute: Jon Sarasuaren gogoetez; testuinguru ekonomiko berrian euskarak presentzia gehiago izateko gakoetz; eta ikus-entzuleek Whatsapp zein Twitter bidez egindako galderez.

Ikus-entzunezkoen bitartez, hainbat esperientzia ezagutarazi ditu Udaltopek, eragile ugariarenak. Osasuna futbol klubarenak esate baterako. *Euskararen Osasuna ehun urte eta gero* hitzaldia egiteko asmoa zeukaten, baina itxialdia tarteko, txosten bat eta bideo bat prestatu dituzte. Datorren astean zabalduko dituzte eduki horiek antolatzaileek, sarean. Aurtengo edizioa beste testigantza batzuk: Maier zein Agour kooperatibena eta Arabako Alea tokiko hedabidearena.

Aurtengo edizioari amaiera emateko, zuzeneko konexioa egin dute Urbiako lainoan zegoen *korrespontsalarekin*: Bea Egizabal herritarrek umore ukitua eman dio Udaltopen hamabigarren edizioari, eta, momentu onenak erreparatzearekin batera, honako galdera egin dio Jon Sarasuari: "Jon, zure hitzaldian ikusi dugun liburutegi horretako liburu guztiak irakurri al dituzu?".



NEURE KABUZ

JEXUX ARTETXE

Etxealdia

Etxea eta itxia oinarri bereko hitzak dira. Garai bateko gizakiak beren babeslekua hetsi beharrean aurkitu ziren. Hortik dator etxea. Barandiaranen iritziz, bizitokiaz gain, lantegi eta tenplua ere bazena. Etxeetako horma itxien barnean, beraz, bete zitezkeen giza-bizitzaren beharrez nagusienak. Etxearentzat izan eta bizi ziren gure aurrekoak. Jatorriko izaera etxekoa zuten, eta etxearen izenak ezaugarritzen zituzten.

Etxearen izen ona ez zen bere gisa mantentzekoa. Etxekoak lana gogotik egin behar zuten. 'Egin' hori omen zen etxekoaren grina. "Duintasunez bizitzeko, lana besarkatu beharra dago", ikasi zuen Arizmendiarririk Markinako baserrian egin zuen umezaroan. Baina, euskal etxearen helburua irautea omen zen. Belaun berriei begira, etxea ontzera behartuta zeuden etxeko nagusiak. Galbidean jartzen zutenak berriz, etxekaltzetat hartzen zituzten.

Birusari aurre egiteko etxe-itxialdian sartuta egon gara. Hartu dugun astinduak eraginda, gogo-hausnartzerako parada ezin hobea eduki dugu. Hetsita egon garen bitartean, gure etxeko (eta herriko eta munduko) gora-beherez jabeago egin garen beste gauza bat da. Gaur eguneko etxea ez da garai batekoa, zenbaitetan gure arbasoek hain berea zuten ikuskera hari eusteko premiariak daukagun arren.

Gehienetan, etxe modernoak bizileku hutsa besterik ez da. Jende askok aparteko guneeetan osatzen ditu behar dituen hornidura materialak eta espiritualak. Bakardadea ere hortxe ari da gero eta zabalagoa egiten. Horregatik, itxialdiaren esperientzia etxean kaiolatuta baleude bezala bizi izan dute askok eta askok, bukaeraren zain urduri eta antsiatsu.

Ez naiz aintzinako bizimoduaren nostalgikoa. Baina, uste dut etxea-senidegoa, hartu duen zentzu modernoak galdu gabe, berreskuratu egin beharko genukeela giza-bizitzaren erdigunean jartzeko, oraindik ere gure beharrezanean erantzuteko funtseko erakundea delako.

'Balkoietara' lehiaketarekin bat egiteko deia

Lasarte-Oriako Udalak *Balkoietara* lehiaketa martxan jarri du, herritarrek konfinamenduan zehar bizitakoak jasotzeko asmoz. Parte hartzen duten herritarrek honako sariak eskuratuko dituzte: 30 eta

50 euro arteko erosketa bonuak. Hamabost langile baino gutxiago dituzten komertzioei aukera eman nahi die udalak ekimenarekin bat egiteko, bonuak denda horietan erabil ditzaten sarituek. Maiatzaren 22a izango da azken eguna, ostirala. Fitxa bat bete behar dute, eta kultura@lasarte-oria.eus helbide elektronikora bidali.



NOAOA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

943 37 36 13

Orduetgia: **09:30-13:30**

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaoa.eus



Usurbilgo Lanbide Eskolako, Aterpeako eta Lasarte-Oriako Udaleko ordezkariak elkarlanaren aurkezpen ekitaldian. TXINTXARRI

Elkarlanean egindako maskarak, herriarentzat

Usurbilgo Lanbide Eskolak egindako 478 babes-maskara banatuko dituzte Lasarte-Oriako komertzioetan. Lasarte-Oriako merkatarien elkarte Aterpearekin eta udalarekin batera, elkarlanean osatu dute egitasmoa. Datozen egunetan banatuko dituztela jakinarazi dute

Txintxari

Astelehen goizean aurkeztu dute egitasmoa, Mirentxun. Bertan bildu dira Lasarte-Oriako Udaleko alkate Agustin Valdivia, eta Sozioekonomia arloko Nuria Fernandez, Oier Aranzabal Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendariordea, eta Aterpeako lehendakari Miguel Angel Prieto, besteak beste.

Azken hori izan da hitza hartzen lehena, eta azaldu du Usurbilgo Lanbide Eskolarekin batera aurrera eramandako egitasmoarekin herriko komertzioetan "modu seguruagoan" lan egin ahal izango dutela. Eskerrak eman dizkio baita ere Lasarte-Oriako Udalari, eta jakinarazi du datozen egunetan banatuko dituztela herriko merkataritza, negozio eta zerbitzuetan; 478 babes-maskara egin ditu Zubietako ikastetxeak herriko komertzioetara eramateko.

Sozioekonomia arloko Nuria Fernandezek hitz egin du gero. Eskertu egin du Usurbilgo Lanbide Eskolaren laguntza eta lana, eta jakinarazi komertzio, negozio edota zerbitzu bakoitzean babes-maskara bana banatuko dutela. Egitasmo horren bitartez, komertzioetako arduradunen osasuna babesteaz gain, bezeroen segurtasuna ere bermatu nahi dutela azpimarratu du, eta Agustin Valdivia alkateak hitz horiek berretsi ditu. "Bezeroen eta negozioen jabeen arteko konfiantza bermatu nahi dugu".

Elkarlana balioan jartzen

Horrekin batera, herriko entitate ezberdinen arteko elkarlana jarri du balioan: "Horrelako egitasmoekin denon onurarako gauzak sortzen dira, eta inguruan ditugun baliabideak erabili behar

ditugu horrelako egitasmoak aurrera eramateko".

Aurkezpen ekitaldia amaitu aurretik, Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendariorde Oier Aranzabalek ere hartu du hitza, eta azaldu du osasun larrialdia deitu eta berehala hasi zirela maskarak egiteko lanekin: "Makers Covid-19 izeneko egitasmo bat abiatu zen, eta lanbide heziketako ikastetxe ezberdinen eta Euskadiko Lanbide Heziketak ikerketa zentroa den Tknikaren artean aritu gara babes-maskarak egiten". Hilabete hauetan zehar 30.000 baino gehiago fabrikatu dituztela jakinarazi du, eta horiek guztiak adinekoen egoitzetan, ospitaletan, ambulatioetan, ambulanzietan eta azkenik gizartean banatu dituztela. Lasarte-Oriarentzat egin dituzten 478 horiekin amaituko dute orain arteko jarduna.



Beterri-Buruntzaren atarian eskuratu daiteke informazio osagarria. BETERRI-BURUNTZA

Herritarrentzat aholkularitza zerbitzua martxan da

Pertsona, langabetu eta familientzako informazio eta aholkularitza zerbitzua abiatu du Beterri-Buruntzak

Txintxari


Zerbitzuaren helburua herritarrek enplegu arloan eta diru-laguntzen inguruan dituzten kontsulta espezifikoei erantzuna eman eta egoera bakoitzaren arabera jarraitu beharreko prozedura eta jarraibideei buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematea da.

Pertsona, langabetu eta familientzako informazio eta aholkularitza zerbitzua martxan, eta zerbitzu honen bidez, bi kontsulta mota egin ahalko dituzte interesatuek. Lehenik, enplegu orientazioa eta hainbat kudeaketa izapidetzeko laguntza teknikoa: Enpleguarekin lotura duten zalantzak (langabezia edo DSBE/RGI eskaera edo berritzea, ERTEi

buruzko kontsultak...) argitu eta tramite ezberdinak aurrera eramateko zailtasunak dituzten herritarrei laguntza teknikoa emateko zerbitzua.

Bigarrenik, berriz, diru-laguntza eta neurriei buruzko informazio eta aholkularitza zerbitzua: Alarma-egoeraren eraginpean dauden pertsonen eta familien zuzendutako neurriei, laguntza ekonomikoei eta gizarte-laguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Zerbitzuaren inguruko informazio gehiago eskuratu nahi duenak Beterri-Buruntzaren ataria. Telefono zenbaki bat ere jarri dute: 688 774 650 zenbakira deitu daiteke, 09:00etatik 13:00etara bitartean.



LASARTE-ORIAKO UDALA

Udaltzaingoaren autoari, eraso

Ostiral goizean, Udaltzaingoaren automobiletako bat bi gurpil zulatuta agertu zela jakinarazi du udalak. Agustin Valdivia alkateak gertaera gaitzestearekin batera, elkartasuna adierazi dio Udaltzaingoari, eta azaldu du bizitzen ari garen pandemiaren aurrean, "beharrezkoa" dela ahal diren "langile eta ekipamendu guztiak aktiboan edukitzea, gerta daitezkeen larrialdiei erantzuteko".



Aingirak, barboak eta ezkailluak agertu dira hilik Arkaitz errekan. GURASOS

Ehunka arrain agertu dira hilik, erraustegi inguruko errekan

GHK-k Arkaitz errekan gertatutakoaren inguruan eman duen bertsioa gezurtatu egin du GuraSOSek

Txintxarri

Aingirak, barboak eta ezkailluak hilik agertu direla salatu zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, iragan asteburuan. Gertatutakoa salatuko dutela jakinarazi dute. Uraren Agentzia ubidera bertaratu da, eta laginak hartu ditu gertatutakoa ikertzeko. Gertaera horren aurrean, ohar bat zabaldu du GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak. Horren bidez ukatu egin du erraustegiak Arkaitz errekan isuriak egiten dituenik, eta gaineratu, errauste plantaren azpiegitura ezberdinetan erabiltzen den urentzako "zirkuitu itxia" dagoela. Azaldu du baita ere, "euri urak soilik" isurtzen dituztela ubidera, eta hori "euri urak jasotzeko deposituak gainezka egiten duenean bakarrik".

GuraSOSek, ordea, gezurtatu egin ditu adierazpenok: "Gezurra da erraustegiak gai kutsakorrek dituen uren isuriak aurreikusten ez dituenik". Gaineratu dute bideetatik eta aparkalekueetatik doazen eta kutsadura garraiatu dezaketen euri urek aurrez tratatuak izan behar dutela, Arkaitz errekarra isuri aurretik.

Horrekin batera, kanpoaldera isuririk egiten ez denik ere gezurtatu du GuraSOSek, hain zuzen ere, ingurumen baimenak Añarbeko araztegi bideratzea aurreikusia baitu. Arkaitz errekan gertatzen ari dena Ura Agentziaren esku geratzeak "zoritzarrez bermerik ematen ez duela" nabarmendu du GuraSOSek: "Irizpide independenteekin zuzendutako egitura teknikoak

beharko luketenak, zuzendaritza politiko baten administrazioaren parte dira". Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak ere bat egin du GuraSOSen adierazpen horrekin: "Ez dugu itxaropen handirik eduki behar agentzia horren kontrolarekin, txistea dirudien arren egia tristea baizik ez da: Jose Ignacio Asensio kontseilari den erakunde batek ikertuko du Jose Ignacio Asensio buru duen beste erakunde batek isurketa pozoitsurik egin duen ala ez". GHK-k egindako adierazpen bat gaineratu dio azalpenari GuraSOSek. Adierazpen horretan azaltzen du (GHK-k) Uraren Agentziak frogatuko duela isuriaren erantzukizuna ez dela erraustegiarena "aurretik horrelakoak gertatu direnean erraustegiak ez duela zerikusirik izan frogatu den bezala". GuraSOSentzat "arraroa" da GHK-k egindako adierazpen hori, izan ere, Ura Agentziako tekniko Josu Perek Euskadi Irratian emandako elkarrizketa batean adierazi baitu azken hamar urteetan ez direla horrelako gertaerarik izan inguru horretan.

Edukiontzia marroia

Heritarrak hondakin organikoaren poltsak zaborrontzi marroien gainean uzten ari direla jabetu da Lasarte-Oriako Udala, eta gogorazti du zaborrontzi barruan utzi behar direla hondakinak. Informazio gehiago nahi duenak 943 37 60 55 telefonora edo zerbitzuak@lasarte-oria.eus posta elektronikora.

Xirimiriren aldeko ekimena debekatu du Lasarte-Oriako Udalak

Udalak Xirimiriren aldeko ekimen bat debekatu du. Elkartearen zuzendaritza batzordeak deia egin zieten herritarrei adierazteko zer esan nahi duen elkarteak haien zat, post-it batzuek afixa batean itsatsiz. Debekuak debeku, hainbat herritarrek papertxoak itsastera animatu ziren, euren bizitokitik gertuko hormetan.



Xirimiriren aldeko ekintza debekatu egin du Lasarte-Oriako Udalak. XIRIMIRI

m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

"Ekinez ikasten dugu, 'learning by doing' metodoarekin"

Nahia Egaña (Lasarte-Oria, 18 urte) LEINN (Liderago Ekintzailea eta Berrikuntza) graduoko 1. maila ikasten ari da.



Non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu zaleztasunik?

Orain arte Lasarte-Oria ikasi dut eta orain Bidasoako campusean nago, Irunen. Musika entzutea eta dantzatzea gustatzen zait. Baita futbola eta lagunekin egotea ere.

Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

LEINN gradua desberdina delako aukeratu nuen, nire baloreekin bat datorrelako. Eta Mondragon Unibertsitatea, hemengo delako.

Nola baloratuko zenuen LEINNen bizitako esperientzia?

LEINNen ideia batekin sartu nintzen eta orain desberdin bat daukat. Hasi nintzenetik pertsona gisa hazi eta aldatu naiz. Gradu desberdina da, berezi sentiarazten zaituzte. Gainera, taldekideak beti izango dituzu zure alboan.

Nola definituko zenuen Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia? Zer azpimarratuko zenuke?

Desberdina. Hori da hitza, ez delako metodologia tradizionalen sartzen.

Unibertsitatek zer da gehien gustatzen zaizuna?

Gertutasuna, pertsona bakoitzaren berezia da. Gainera, denetarik egin behar duzunez, zure ezaugarri gehienak garatzen dituzu.

Lehen egunetik enpresa bat sortu unibertsitatean eta proiektuak garatu, nola egingen da hori?

Hasieran ez dakizu zer egin baina informazioa bilatuz eta ekinez ikasten duzu. "Learning by doing", eginez ikasten da.

Ze proiektu mota garatu dituzue LEINN graduan zehar?

Denetarik egin dugu: haurrentzako eta rifak saldu,

algodoizko poltsak saldu, futbol txapelketak antolatu, ardoa eta txakolina Alemaniara esportatu, Euskal Herriko garagardoa eta sagardoa Alemaniara eramane...

Atzerriko esperientziarik izan duzu edo izango dituzu? Non? Nolakoak izan dira?

Otsailan gure lehen esperientzia hasi zen. Paris, Bruselas eta Maastricht izan ondoren, Berlinera iritsi ginen. Bertan igaro behar genituen ondorengo sei asteak baina zoritzarrez, Covid-19 zela eta, bigarren astearen bukaeran bueltatu behar izan ginen.

Zer egiten duzu orain eta etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Orain lanean jarraitzen dugu, baina etxetik. Pertsona bezala nire burua garatzen eta ekipokoekin esperientzia berriak bizitzen jarraitu nahi dut.

Ikastetxe eta ikasleak ikasturteko azken txanpan

Lasarte-Oriako ikastetxeak ikasturteko azken hilabeteari aurre egin beharko diote. Hainbatek etxetik, eta, gutxi batzuek, presentzialki. Egoerara moldatu behar izan dira ikastetxeak zein ikasleak, eta, OriarteBHIn, esate baterako, ikasleek hezkuntza zaintza sarea martxan jarri dute



Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako patioetan ez da haurrik izango ikasturte amaiera honetan. TXINTXARRI

2. Batxilergoko ikasleak, ekainean berriro geletara

Oriarte BHIk eta Oriartekide Guraso elkarteak 4. DBH eta 1. Batxilergoko ikasleak Institutura ez bueltatzeko gomendioa egiten dute. Lasarte-Oriako gainerako ikastetxeetako lan taldeak ere ikasturteari agur nola esan antolatzen ari dira

Nerea Eizagirre

COVID-19a dela eta, ikasturte amaiera berezia izango dute Lasarte-Oriako ikastetxeek. Ikaslerik gabeko gelak, pantaila bidezko saioak... Egoerara moldatu eta digitalki agur esan beharko diete ikasleei ekainean. Guztiei, 2. Batxilergoko ikasleei izan ezik. Horiek ekainean leian itzuliko baitira Oriarte BHIra.

Azken egunetako nahasmenaren ostean, Hezkuntzak zein ikasle eta noiz itzultzen diren erabakitze ahalmena eman dio ikastetxe bakoitzari. Ondorioz,

Oriarte BHIk, Oriartekide Guraso elkartearekin adostuta, 2. Batxilergoko ikasleen itzulera bakarrik aurreikusten du. "Ez dugu uste 1. Batxilergoko eta 4. DBH mailetan gela presentzialak beharrezkoak direnik; hala ere, haiek nahi izanez gero aukera izango dute etortzeko".

Kasu horretan, gaien errepaso egingo litzatekeela jakitera eman du ikastetxeak, baita agian azterketak presentzialki egin beharko dituztela ere. DBHko gainerako mailek ez dute ikasgeletara bueltatu beharko.

Oraindik, itzuleraren formatua zehazteke du Institutuak, baina presentzialki ahalik eta ikasle gutxien egotea bermatu nahi du. "Ez dakigu denak ikasgelara bueltatuko diren edo txandaka egingo den... zehazteke dugu".

Ziurra duten bakarra da, 2. batxilergoko ikasleek ekainean leian hasi eta uztailearen 3an amaituko dutela. "Horiek Selektibitatea prestatu edo dena delakoagatik nota igo nahi duten ikasleak izango dira".

Lasarte-Oriako ikastetxeetako gainerako ikasleek ordea,

ekainaren erdialdean emango diote amaiera ikasturteari. HH eta LHko ikasleek ikasturtea euren geletan amaitzea zail ikusten dute. "Agian, LH6 mailako ikasleak itzuli daitezke, etaparen amaieran daudelako eta DBHra pasako direlako. Ez dago batere argi gaia", nabarmendu du Landaberri ikastetxeak.

Bizi dugun egoerara moldatzeko lan eskerga egin dute ikastetxeek, eta, egun, Hezkuntzako plangintzari jarraituz, ikasturteari amaiera eta hurrengoaren hasierari forma eman behar diote.

Ebaluazioa

Erabakien artean, ikasturteko azken ebaluazioa nola egin zehaztu behar izan dute eta Lasarte-Oriako ikastetxeek saio presentzialen ebaluazioa egingo dutela jakitera eman dute.

Beraz, hirugarren hiru hileko berezi honetako lanak era positiboan balioztatuko dituzte. Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeeko kideek adierazi duten bezala, "3. Hiruhileko lanak baloratuko dira nota hobetzeko baina inolaz ere jaisteko".

Oriarte Institutuak ere ildo horretan erantzun du: "Pisuzko balioa ematen zaio horrela ikasleek itxialdia baino lehen egindakoari".

Ebaluazioetan alarma egoeraren eragin negatiborik ez dutela jaso nahi ere nabarmendu du Landaberri ikastetxeak.

Orain hartutako erabakiek eta plangintzak hurrengo ikasturte osoan eragina izango dutela adierazi dute Oriarte BHIko kideek. "Iraila ez da normala izango, baina datorren ikasturtea ere ez. Batez ere, 4. DBHtik 1. Batxilergora igarotzen diren ikasleentzat eta egun dibertsifikazioan dauden

ikasleentzat. Azken hauen kasuan, neurriak hurrengo ikasturtean dibertsifikaziorik ez izatea ekarri baitezake".

Hori dela eta, ikasketak jarraitzeko arazoak dituzten ikasleei jarraipena egin eta plangintza berezi bat egitea gomendatu du Hezkuntzak eta udan errefortzu lanak bidaltzea ere aurreikusten da. Landaberri ikastetxeak aurrerago aztertuko duten gaia dela adierazi du.

Horren harira, teknologikoki jarraipena egiteko arazoak dituzten gazteei lan egiteko beste moduak bilatzen saiatu dira ikastetxeak. Hala nola, SIM txartelak banatu, etxeko lanak paper formatuan prestatu, dei telefonikoak egin edo etxeko-lanak postaz bidali zaizkiela jakitera eman dute ikastetxeek.

Hori guztia aurrera eraman ahal izateko, ikastetxeetako tutoreak guraso eta ikasleekin harreman zuzenean daudela jakitera eman dute ikastetxeek, baita edozer zalantza izanez gero, gurasoak tutore edo ikastetxearekin harremanetan inolako arazorik gabe jarri daitezkeela ere.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeeko lan taldeak familiei gogoratu nahi die hilabete hauetan helburua "lan ohiturak mantentzea" dela. "Ez da hain garrantzitsua lan kantitatea, baizik eta egunero pixka bat egitea".

Horrez gain, ikastetxeek familiei eskerrak eman nahi dizkiete egiten ari diren esfortzu eta lanarengatik. Era berean, ikasturteko azken hilabete honi eta itxialdiari aurre egiteko animoak bidaltzen dizkiete. "Guztion elkarlanak egoera honetatik onik ateratzen lagunduko gaituela ziur gaude", adierazi du Landaberri ikastolak.



Oriarte Institutuko eta Usurbilgo Udarregi ikastetxeetako ikasleek, elkarlanean jarri dute martxan zaintza sarea. TXINTXARRI

Ikasleen beharrak asetzeko, zaintza sarea

Koronabirusak eragindako egoera dela-eta, ikasleen beharrak asetzeko sortu dute Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ikasleek Hezkuntzako Zaintza Sarea. Behar ezberdinak atzeman dituzte, eta horiei erantzuteko lanetan ari dira, elkarrekin.

Txintxarri

Bizitzen ari garen osasun larrialdia ikasleei ere eragin die euren ikasketa prozesuetan.

Hortaz, "salbuespeneko egoera" honetan sor daitezkeen behar berriei zaintzaz eta elkarlanaz erantzuteko ikasleen zaintza

sareak sortu dituzte Lasarte eta Usurbilgo ikastetxeetako gazteek. Hain zuzen ere, Oriarte institutuko DBH3-4 eta

Batxilergoko 1. eta 2. Mailako eta Udarregi ikastolako DBH3 eta DBH4ko ikasleentzat dago bideratuta.

Idea Gora Ikasleon Borroka ikasle mugimendutik jaso zuten arren, zaintza sarearen kudeaketa eta antolaketa guztia Oriarte zein Udarregiko Ikasleok gidatzen dute.

Atzeman dituzte behar ezberdinak. Alde batetik, "edukiak lantzeko beharra" ikusi zuten klase telematikoko interaktiboen bitartez, eta baita azalpen bideo zein azalpen apunteen bidez. Bestetik,

"apunte zein baliabideen kolektibizazioa" martxan jarri dute, "apunteen saretzea" sustatzeko eta "ariketen ebazpenak ikasleekin partekatuzeko".

Hortaz gain, beste ikasle batzuek "material fisikoaren beharra" dutela ere ikusi dugu, hala nola, ordenagailuen beharra eta wifiarena, besteak beste.

Oraingoz, apunteak eskatu dira gehien. Horregatik, apunteen kolektibizazioan ari dira indar gehienak jartzen. Baina, klase telematikoko, azalpen bideo, ariketen ebazpenak, material fisikoa, selektibitateko azterketen ereduak... eskaintzeko prest daude.

Gutxi gora behera 50 lagun ari dira egitasmoan lanean. Laguntza jaso edo eskaini nahi duten pertsonak osatzen dute Hezkuntza Zaintza Sarea. Gehienak ikasleak dira, euren arteko saretzea bultzatzea baita helburuetako bat, baina laguntza eskaini nahi duten irakasle batzuk ere badaudela jakinarazi dute, eta horien kolaborazioa "benetan" eskertzen dute.

Harremanetarako bideak

Ekimenean parte hartu nahi dutenei deia luzatu diete: Horrela malenarregi@oriarte.eus edo elorriarmendariz@oriarte.eus helbideak, edota [@oriarteasanblada](https://www.instagram.com/oriarteasanblada) instagram kontura idatzi daitezke.

Konfinamendu garaian ere, uhinetan elkartu dira

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko irakasle eta ikasleek 30 minutuko irratsaioan parte hartzen dute, egunero. Eduki ezberdinak lantzen dituzte, eta eskolarekiko harremana izateko baliabide egokia da. Dei egin diete herritarrei 'Esazu irrattia' entzutera

Txintxarri

Azken hilabeteotan, Sasoeta-Zumaburuko ikasleek ere ezin izan dute ikastetxea joan, baina izaten ari dira elkarren berri. Modu berezi batean, gainera: uhinen bidez. Hain zuzen ere, bada denbora bat, *Esazu irrattia* sortu zutela, eta, orain, berriro ere martxan jarri dute.

Irakasle eta ikasleek parte hartzen dute irratsaioan, eta askotariko edukiak lantzen dituzte; errezetak, ipuinak eta elkarrizketak, besteak beste.

Helburu zehatz batekin jaiotzen *Esazu irrattia*; familia eta ikasleen euskararen ahozkoatasunean trebatzeko, eta ari dira horretan. Egunero egiten

dute irrati saioa, 105.5 FM sintonian, eta goizeko 10:00etatik 10:30era.

Ikastetxeko ordezkariak irratsaioa entzutera animatu nahi dituzte lasarteoriatarrak, herri guztian entzun baitaiteke. Ikastetxearen web orrialdearen bidez ere eskuratu dateke lotura, *Jarduerak* atalean.

esazu irrattia



Ikastetxeko irakasle eta ikasleak egunero egiten ari dira irratsaioa. SASOETA-ZUMABURU



Euskara etorkizuneko belaunaldien helduleku

Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek, hau da, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Usurbil eta Urnietakoek euskara sustatzen dihardute aspaldidanik eremu anitzetan; besteak beste, etxe barruan. Familia barruko komunikaziorako nahiz belaunaldi arteko transmisiorako bidea euskara izateko ahaleginean ari dira lanean

Herritarrek ere batu dira zeregin honetara. Etxeko hizkuntza erabakigarria baita sarritan, gerora, norberaren bizitzan ahotan hartzen den hizkuntza hautatzerakoan ere. Asko dira, arbasoengandik jasotako ama-hizkuntza naturaltasunez txikitatik jaso eta erabileraren sokari segida ematen diotenak. Eta beste hainbat, euskaldundu ahala, gerora euskararen transmisio lanetan hasten direnak. Euskaldunduriko edo euskalduntze bidean diren guraso migranteak, esaterako.

Tartean, aparteko ahalegina egiten ari dira lerrootan bildu ditugun bi emakume; Fatima Fatimetou eta Vanessa Estupiñan. Biak ala biak munduko herrialde desberdinetatik gure artera haien bizi proiektua garatzera etorri ziren duela hamarkada bat. Fatima Saharatik, Vanessa Kolonbiatik. Biak ari dira euskara ikasten, haien sorterriko hizkuntza eta kultura alboratu gabe, euskararen transmisioa etxe barruan bermatzeko. Euskal Herrian jaio eta hezten ari diren seme-alaben eguneroko hizkuntza euskara izan dadin lanean.

Kolonbiarra da Vanessa. Duela 10 urte heldu zen Lasarte-Oriara anaiarekin. Egun, lehen hitzak euskaraz ikasten ari den ia 3 urteko haurra du. Euskara jasotzen hasia da eskolan eta etxean. "Bat, bi erdaraz esan beharrean euskaraz adierazten du". Bikote lagunak eta berak "dakigun oinarrizkoena irakasten diogu eta ulertzen du".

Argi zuen Vanessak, hemen bizita haurrak euskaraz ikasiko zuela "eta nik ere bai". Eskolan nahi zutenek euskara ikasten hasi edo indartzeko informazioa biltzen zuen eskuorri modukoa



Kolonbiarra da Vanessa. Duela 10 urte heldu zen Lasarte-Oriara anaiarekin. Egun, lehen hitzak euskaraz ikasten ari den haurra du.

helarazi zieten gurasoei. "Lan ordutegia egokitzeko aukera izan eta euskaltegira joan ahal nuen, azaldu digu Vanessak. Batez ere etxean duen haurragatik ari da ikasten. Etorkizunari begira da, haurra helduxeagoa izango den une horri begira. "Eskolan dena euskaraz irakatsiko diote eta

"NIRE LANTOKIAN SOLTURA HANDIAGOA EDUKITZEA NAHI NUKE"

guk etxeko lanekin lagundu nahi diogu". Ez du bere sorterriko inguruetakoa beste hainbat herrikideren egoera bera bizi nahi. Alegia, ez du etxeko lanetarako laguntza eskatzera behartua sentitu nahi. "Euskal Herrira bizitzera etorritako gurasoen haur dezente ezagutzen dut, etxeko lanetarako laguntza eskatzen dutenak", azaldu digu

"GUSTUKO DUT EUSKARA IKASTEA ETA HEMEN BIZITZEA, ETA OINARRIZKOA DA"

Vanessak. Berak izan nahi du transmisio lan hori euskaraz egingo diona. "Nik nahi dudana da guk lagundu ahal izatea, inoren beharrik izan gabe. Aurrerago, laguntza beharko du eta. Bi gurasoak kolonbiarrak gara eta euskaraz mintzatzeko gai ez bagara, pentsa haurrari nork lagunduko dion etxeko lanetan".

"HAURRARI ESKOLAKO ETXKO LANEKIN LAGUNDU NAHI DIOGU"

Ez da euskararekin duen lehen hartueman. Heldu zenetik DBH4an matrikulatu eta lehen hitzak ikasten hasi zen. Bere garaian urtebetez aritu zen euskaltegian. "Agur hitzak, aditz batzuk oso zailak egiten zitzaizkidan". Administrazio eta finantza ikasketak egin zituen. Lanpostu bat aurkitzeko ordea, euskara maila altu edo ertainean menderatzea eskatzen dute. "Euskara ulertzen nuen, baina ez nintzen erantzuteko gai. Beraz ezinezkoa zitzaidan, ikasi nuen horri lotutako lanpostu bat aurkitzea".

Euskaltegira itzuli da, "euskaraz erantzutekoan segurtasuna izateko. Hanka sartu arren, euskaraz hitz egiten saiatu nahi nuke". Etxean eta baita jendaurrean lan egiten duen supermerkatuan ere. "Jende gehiena euskaraz agurtzen dut. Gero euskaraz hitz egiten segitzen dute, baina erdaraz erantzuten diet, prezioak adibidez euskaraz adieraztera ez naizelako ausartzen, hanka sartu dezakedalako". Lantokian "soltura handiagoa izan nahi nuke, etxera heldu eta haurrari euskaraz gauzak egoki adieraztea".

Bere antzeko egoeran zalantzan direnentzako mezua; "saiatzera animatuko nituzke. Euskaltegira joan daitezela, are gehiago eskolak berak horretarako aukera ematen badizu. Lanean nahiz etxean euskara erabiltzeko ikasiko duzu". Oinarrizkotzat jotzen du, "benetan hemen bizitzera erabaki eta seme-alabak hemen hazi nahi dituenarentzat". Eta noski, guraso gisa seme-alabei ere hizkuntza bera transmititzeko. "Gustuko dut euskara ikastea eta hemen bizitzera, eta oinarrizkoa da lantokirako, familiarako".

"Semeak sahararrak izan arren, oso euskaldunak dira"

Fatimak 14 urte daramatza Usurbilen bizitzen. Ama izan zenean argi zuen ikastolan, matrikulatu zituen semeak. "Hemen bizitzea erabaki nuenez, euskara ikastea nahi nuen". Euskalduntze bide horretan, ez zuen bitan pentsatu; semeak ikastolan matrikulatu zituen. "Euskaldun euskaldunak dira. Etxean haien artean euskaraz hitz egiten dute. Arabieraz baino hobeto moldatzen dira. Sahararrak izan arren, oso euskaldunak sentitzen dira", dio Fatimak.

Hizkuntza transmisioari dagokionez, paper garrantzitsu eta berezia dute Fatimak eta senideek. Alde bietakoa den elkar ikaskuntza eta igorpena; semeek euskara ikasten laguntzen diote Fatimari. Fatimak sorterriko hizkuntza transmititzen die semei arabiera gal ez dezaten; transmisio bikoitza da halere, ikasten doan euskara ere ahotan hartu nahi baitu semeekin. "Ama hizkuntza ere ezagutu behar dute, inork ez baitu bere jatorria ahaztu nahi eta beste hizkuntza bat ikasteak ez dio tokia kentzen lehendik ikasitakoari". Lerrokatuak bazekien Usurbilen ikasita, euskara, gaztelera eta ingelera ikasiko zutela semeek, "arabiera irakasten ez banien, ez zuten ikasiko". Orain, funtzio trukaketa egin dute. "Ni

BAZEKIEN BERE SEMEEK EUSKARA, GAZTELERA ETA INGELERA IKASIKO ZUTELA HEMEN



Semeak Usurbilgo ikastolan matrikulatu zituen. "Euskaldun euskaldunak dira". NOAUA

irakasten aritu naiz, haurrek arabieraz hitz egitea lortu nuen. Orain haiek laguntzen naute euskararekin".

Bere garaian, semeak txikiak zirela "nahi nuen haiekin euskara ikasi eta denok batera aurrera egitea baina lan kontuengatik ez nuen lortu. Orain ordea bai". Euskara etxetik kanpo jaso dute semeek, baina bide hori indartzeko Usurbilgo Etumeta

AEK euskaltegian hasi da ikasten Fatima. Pozik eta motibatua dabil. "Asko laguntzen naute. Lehen ikasturtean nago. Hemen bizitzen denbora asko daramadanez eta interesa dudanez, hitz egitea kostatzen zait baina ulertu, asko ulertzen dut", adierazi digu. Ikasitakoa ahotan hartzen ahalegintzen dela nabarmentzen du, gune publikoetan eta etxean. Etxeko

lanak partekatzen dituzte ama semeek. "Ama, ondo egiten ari zara. Pixkanaka aurreratzen zoaz", adierazten diote semeek Fatimari. Argi du bide luzea duela jorrateke aurretik, "baina, garrantzitsuena borondatea da, gauza asko lor ditzakezu borondatea izanez gero".

Eta erronka beteko duela argi du. "Inoiz ez da berandu. Saiatzen bazara, nahi duzuna lortu ahal

"Hobeto euskara ondo ezagutzea, askoz gehiago jakiteko eta gizartean integratzeko"

Euskal Herriko berri bazuen Fatimak lehendik. "Sahararra naizenez, euskal historia aspalditik ezagutzen dut. Hona etorri aurretik". Gustuko du euskara eta euskal kultura. Kanpamenduetan bizi zirela, oso gogoan du "euskaldunen komisioak etortzen ziren saharar herria laguntzera". Horregatik dio, behin hona etorrita, "hobeto euskara ondo ezagutzea, askoz gehiago jakiteko eta gizartean integratzeko".

"Bat gehiago izan nahi dut"

Herrigintzan nahiz aisialdi eremuan emakumeen pala taldean parte hartu izan du. "Denek hitz egiten zuten euskaraz. Ez nuen taldeko astuna izan nahi". Argi dio, "bat gehiago izan nahi dut, noan lekura noala". Lan mundurako ere behar da euskara, "askok euskaraz soilik hitz egiten dute eta haien eskubidea da".

"Euskaraz hitz egiteak bizitza errazten ditu"

Halakoetan argi du, "pertsonekin zer hizkuntzetan komunikatu jakin behar da, nahiz egoki ez adierazi. Gutxienez interesa erakustea". Sorterrian egoera latz asko bizitzea egokitu zaie eta Fatimak argi du, "bizitza egokitzen zaizkizun egoerekin nola bizi asmatu behar da". Argi irizten dio, "bizi zaren herriko hizkuntzan hitz egiteak bizitza errazten ditu".

"Jakintzak ez du lekurik betetzen"

Berak euskara ikastea, senideekin ere mintzatzea, eta euskararekin bezala, semeek "arabiera ondo kontserbatzea" nahi luke. Transmisio lan bikoitza beraz. Baina berak dioten moduan, jakintzak ez du lekurik betetzen.

duzu. Semeek euskara eta arabiera ondo hitz egiten dute. Nik denborarekin euskara ikasiko dut. Lortuko dut".

"HAURREK ARABIERAZ HITZ EGITEA LORTU NUEN. ORAIN HAIK LAGUNTZEN NAUTE EUSKARAREKIN"



Andoingo Udala
Goiko plaza, z/g
20140 Andoain



Astigarragako Udala

Astigarragako Udala
Foru enparantza
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala

Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani




LASARTE-ORIA

Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria



Urnietako Udala
San Juan plaza, z/g
20130 Urnieta



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil



Narrea Furundarena atleta, Amaia Andres eta Oscar Goikoetxea prestatzaileak, Espainiako txapelketako irudian. OSTADAR ATLETISMOA

"Benetako" 1 fasearen zain

Bi hilabete hauetan, Ostadar SKT atletismo saileko kideek euren jarduna eta entrenamenduak egoeraren arabera moldatu dituzte. Egun kalera atera daitezke kirola egitera, baina Michelin Kirol Guneko atletismo pistan lan egiteko irrikan daude

Nerea Eizagirre

Ostadar saileko atletismo taldea beste kirolen antzera egoerara moldatu behar izan da. Oscar Goikoetxea eta Amaia Andres prestatzaileak eta kirolariak itxaropentsu zeuden itxialdia baino lehen, maila ezberdinetako lehiaketetan maila ederra erakusten ari ziren eta kasu batzuetan, euren garapena handia zen.

Itxialdiak, berriz, etxean lan egitera behartu ditu eta euren garapena eten du horrek. Hala ere, kirolariak jardura fisikoa mantendu eta "egunerokotik ihes egiteko" entrenamendu bereziak bidaltzen dizkiete prestatzaileek, Goikoetxeak azaldu bezala. "Astero kirolari bakoitzari moldatutako entrenamendua bidaltzen diogu fisikoki ongi mantendu daitezten. Baina lan tekniko egitea ezinezkoa da egoera honetan".

Entrenamendu hori egoeraren arabera moldatu da eta duela bi astetik, kalean kirola egin daitekeela baliatuz bertan egiteko ariketak ere txertatu dituzte atleten errutinan. "Kalean ahal ditugun materialekin egin ditzaketen ariketak gehitu ditugu", aipatu du Ostadar SKTko prestatzaileak.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan "benetako" 1 Faseara igarotzearen zain daude Ostadar SKTko atletak. "Michelin kirol guneko pista erabiltzeko baimena ematen digutenean, beste entrenamendu batzuk landu ahalko ditugu. Segurtasun eta

**"EPE ERTAINERA
KIROLARIEN
GARAPENAREKIN
AURRERA EGIN
AHALKO DUGU"**

osasun neurriak jarraituz, noski".

Oztopoak oztopo, baikor agertzen da kirolarien garapenari buruz hitz egiterakoan. "Epe ertainera kirolarien garapenarekin aurrera egiteko aukera izango dugula uste dugu".

Era berean, Ostadar atletismo taldeko kideek ekimen berezirik edo erronkarik egin ez dutela ere aipatu digu: "Ez doa gure izaerarekin bat".

Lehiaketarik ez

Itxialdia ezarri zenean, pistako denboraldia bertan behera geratu zen eta kanpoko denboraldia egingo den edo lehiaketarik izango den airean geratu zen.

Federazio ezberdinekin harreman zuzena du Ostadar SKTko atletismo sailak, Amaia Andres entrenatzailea horietako kide baita eta jasotako berrien arabera, Espainiako Federazioak

Jarduerara itzultzeko lanean

COVID-19aren pandemiak eragindako egoera zailean, Ostadar SKT-ko zuzendaritzak ohar bat zabaldu du bere jarduna berreskuratu aldera hartutako zenbait erabakiren berri emanez.

Ostadarreko kirolariak kirol jarduerara buelta daitezten lanean ari dira, nahiz eta "ezjakintasun eta ziurgabetasun" egoera honetan erabakiak hartzea ez den erraza. Eskola lehiaketak, saskibaloia, errugbia, bolo eta toka lehiaketa guztiak amaituzat eman dituzte; futbol, boleibol, kirol egokitua eta atletismo federatukoekin, aldiz, erabakitzeko dago zer egin. Ildo beretik, entrenamenduetara bueltatzea "oso zaila" izango dela dirudi, bereziki, talde kiroletan.

Arduradunek argi dute hurrengo denboraldiari begira egoera berrira moldatu beharko dutela kirol eskaintza,

"normaltasunez entrenatzen uzten diguten arte". Hortaz, ohararazi dute kirol eskaintzak, izen emate epeak, taldeen osaketak, kuotan eta gainerako informazioa zehaztu ahala familiekin nahiz kirolariekin harremanetan jarriko direla kirol ataletatik. "Pazientzia izan dezazuen eskatzen dizuegu".

Halaber, oharrean jakinarazi dute aurten ez dutela denboraldi amaierako festarik egingo, baina urteroko aldizkaria eta kirol denboraldiko bideoa taldeko webgunearan eta sare sozialen bidez zabalduko dute. Datozen larunbatetan partekatuko dituzte dokumentuak.

Amaitzeko, herriko merkataritzaren alde egin dute. "Gure sorreratik ideia horretan sinetsi dugu eta hainbeste behar gaituzten une hauetan haien alboan egongo gara. Aurrera Lasarte-Oria Bai!".



TXINTXARRI

aurki lehiaketak antolatzeke asmoa agertu du. "Baina hori gutxienez abuztuaren 15etik aurrera izango litzateke eta baldintza oso berezietan, gainera".

Horregatik, argi dute denboraldi honetan behintzat Ostadar SKTko kirolariak lehiaketa gehiagorik ez dutela izango.

**"MENTALKI GOGORRA
DEN ARREN, 2020-
2021 DENBORALDIA
PRESTATZEN
HASI GARA"**

Eta "mentalki gogorra den arren, pixkanaka 2020-2021 denboraldia nola antolatu pentsatzen hasi gara", onartu du Goikoetxeak.

Ostadar SKTko beste ataletako kideekin ere harremanetan mantentzen direla aipatu du Goikoetxeak. "Beste atalekin bilerak egiten ditugu maiz eta animoak ematen dizkiogu elkarri".

Bizi dugun egoera honen aurrean, herritarrei ere animoak bidali nahi dizkie Ostadar SKTko atletismo sailak. "Ziur berrogeialdiaren ostean sortuko den errealitate berrira azkar moldatuko garela".



Denboraldi ederra egiten ari ziren LOKEko judokak. Kadeteek Euskadiko txapelketarako lau txartel lortu berri zituzten eta Asier Sagastik zilarrezko domina, Bartzelonako Espainiako Super Kopan. TXINTXARRI/LOKE JUDO

Judokak, borroka egitera ohituak

LOKEko judoek guztiz eten dute jarduna. Euren kirolaren ezaugarriengatik, entrenamenduen eta lehiaketen etena luzea izango dela iragartzen dute. Itxialdia amaitzean, lan egiteko eta borrokarako "indar eta gogo" gehiagorekin itzuliko dira

Nerea Eizagirre

Judoko atalak denboraldiko momentu erabakigarrienean pairatu zuen jardunaren etena. Martxo eta apirilean Euskadiko zein Espainiako txapelketak jokatu behar zituzten kirolariek. Badakite borroka-kirola izanik, azkenak izango direla lanean hasten, baina itxaropentsu daude urteko azken hiruhilekoan antolatuta daitezkeen lehiaketei begira.

Gorka Aristegi entrenatzaileak pena handia du. LOKEko judoek denboraldi ederra zuten aurretik, "Denboraldi ona zen, emaitza politekin eta aukera handikoa", onartu du prestatzaileak.

Baina COVID-19 birusaren hedapenak eta itxialdiak denboraldiko helburuak zapuztu ditu eta denboraldiko une gorenean gainera. "Euskadiko, zein Espainiako txapelketak jokatu behar ziren martxo eta

apirilean...". Baina kontziente da lehiaketa baino gauza garrantzitsuagoak daudela, bitzta eta denboraldiari jarraipena eman edo berria hasterakoan indar gehiagorekin itzuliko direla argi du. "Borroka ohituak gaude, gure egunerokoa da".

Urte amaieran berriro lehiatzen

Hala ere, LOKEko judo atala kirol arloan geldirik dagoela jakitera eman digu Aristegik. "Kirolari zaharrenei borondatezko entrenamenduak bidali zaizkie, baina ez dugu inongo jarraipenik egiten".

Izan ere, borroka kontaktuko kirola izanik, jardunean hasiko den azkenetakoa izango dela baitakite. Espainiako federazioak helarazitakoaren arabera, guztia ongi bidean, urteko azken hiruhilekoan antolatuko dira txapelketa nagusiak. "Nahiko

baikor agertu da federazioa aurreikuspen horrekin". Horregatik, itxaropentsu agertzen dira aurtengo hainbat helburu mantendu ahalko dituztelako.

Kirolariekin harremana mantentzen du, baina "lagun bezala", eta ez dute erronka edo lehiaketarik antolatu. "Gu ez gara lehiaketak edo erronkak antolatu edo egitekoak, gatzgabeak gara. Judoak kontakturik gabe bere funtsa galtzen du, bideak bezala ikustea izango litzateke, eta gu fisikoki behar gara, hau da, kontaktua behar dugu bizirik sentitzeko".

Elkartearen lana

Kirol arloan lanik ez, baina tekniko kirola LOKEko zuzendaritzarekin harremanetan dago Aristegi eta elkartek aurrera egin dezana beharrezkoa dena egiten dute.

Lan horrekin lotura kirol elkartek hartutako erabaki bat nabarmendu nahi du judo arloko

arduradunak. "Ez dugu egokia ikusi kuotak mantentzea kalitatezko zerbitzua eman ezin badugu. Profesionalak izaki, egoera onartzen dugu eta gure ikasle eta euren familietan eragina izan ez dezan nahi dugu. Kirol taldeak ez du, beraz, diru iturririk jasoko, irabaziak zero izango dira eta batzuk kirol profesionalak gara".

Hau guztiaz gain, LOKEko judo atala itxialdiaren ostean, lan egiteko eta borrokarako indar eta gogo gehiagorekin itzuliko dela argi du Aristegik.

Era berean, mezu bat du herritarrei zuzendua: "Guztiak zoriondu nahi ditugu erantzukizunaren eredu izateagatik eta itxialdi zail hau betetzeagatik. Batez ere, jarduera handira ohituak dauden kirolariei".



Judoa kontaktu askoko kirola denez, lanean hasten azkenetariokoak izango direla uste dute LOKE judoko kideek. TXINTXARRI

Añorga KKEk igoera jokatu du

Etenaldiaren aurretik egindako denboraldiak fruituak eman ditu eta 1. Nazionaleko 2. multzoko txapeldun izan da Añorgako taldea. Ostadar SKT eta Texas Lasartearra elkarteetako hainbat taldek maila berriari ekingo diote hurrengo denboraldian

Txintxarri

Santander Liga eta bigarren mailako futbol taldeak lanean hasi dira ligaren itzuleraren zain. Gainerako ligak, berriz, bertan behera geratu dira, maiatzaren 8an Espainiako Federazioak erkidego ezberdinetako federazioekin batera hartutako erabakiaren arabera.

Horren ondorioz, martxoaren 14an indarrean zegoen sailkapena kontuan hartzen da denboraldiko irabazleak eta igoerak finkatzeko. Gainera, ez da jaitzierarik izango.

Erabaki horri esker, 1. maila nazionalean den Añorga KKEk eraman du berri ona. Javi Solchaga lasarteoriatarak zuzentzen duen taldea 2. multzoko irabazle da eta denboraldiko helburua bete du, RETO Iberdrola ligara igotzeko txartela eskuratzea.

Añorga KKEk denboraldi ona egin du aurten. 19 partidatik 14 irabazi, 2 berdindu eta 3 galdu



Añorga KKE Nazional mailako 2. multzoko irabazle izan da. JAVI SOLCHAGA

ditu taldeak. Bizkerre FT bizkaitarren erritmoari eutsi dio eta puntu bakarreko tartea medio -Añorga KKE, 44 puntu; Bizkerre FT, 43 puntu- multzoko txapela eraman du Solchagag zuzentzen duen taldeak.

Hala ere, Solchaga ez da Añorga KKE taldeko herritar bakarra. Entrenatzaileaz gain, beste lau herritar ere baitaude jokalaria edo prestatzaile lanetan: Izaskun San Aniceto eta Ainara del Olmo, jokalaria, Julen Ormazabal

entrenatzailea eta Jon Presa prestatzaile fisikoa.

Añorga KKEk nazional mailako beste sei talderekin batera igoera espresa jokatu beharko du oraindik zehazteke dauden datetan eta osasun neurriak bermatzeko, ez da ikuslerik izango partida horietan.

Igoera fase berezi horretan multzoetako lehen sailkatuak eta bigarren onena parte hartuko dute. Beraz, Añorgaz gain, Monte, Espanyol B, Betis B, La Solana, Unión Viera, Aldia eta Joventut Almasorra taldeak lehiatuko dira hurrengo denboraldian RETO Iberdrola ligan egoteko.

Denboraldi amaiera

Lasarte-Oriako taldeentzat, berriz, denboraldia amaitu da. Ostadar SKT, zein Texas Lasartearra taldeko kideek ez dute norgehiagokarik izango.

Hala ere, bada berririk. Hiru taldek maila berri bati aurre egingo diote hurrengo denboraldian.

Ostadar SKT'ko jubenil eta infantil txikien taldeek euren mailako ohorezko multzoan jokatu dira. Texas Lasartearra taldearen kasuan, kadete mailara igaroko da infantil taldea.

Iberdrola Ligan ere ez da partida gehiagorik jokatu denboraldi honetan. Real Sociedad taldeak, beraz, seigarren amaitu du liga. Bosgarren denboraldiz aritu da Iraia Iparragirre herritarra bertan.



TXINTXARRI

J. Martijaren oroimenezkorik ez da jokatu

COVID-19ak eragindako egoera dela eta, Jose Martijaren oroimenez jokaten den futbol txapelketa bertan behera uztea erabaki dute 'Los Chicos de Martija' antolatzaileek.

Alebin mailako txapelketa ekainean jokatu ohi da eta Gipuzkoako hainbat talde lehiatzen dira nor baino nor txapela eskuratzeko. Iaz, esate baterako, Zaragozak ere parte hartu zuen.

Aurten ezingo da txapelketa jokatu, baina hurrengo urtean gogo eta ilusio gehiagorekin ekingo diotela adierazi dute antolatzaileek.

Eskola Kirola egitasmoa ikasturtea amaitu da

Nahiz eta ez dagoen argi 2020-2021 ikasturtean jardura egitea posible izango den, lanean hasi dira

Txintxarri

Lehenengo astean, 2019-2020 ikasturteko Eskola Kirola jardura bertan behera uztea erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak.

"Azken asteetako bilakaera ikusita, iritsi da esperotako erabakia", adierazi dute Lasarte-Oriako Eskola kiroleko arduradunek. Martxoaren 12an Lasarte-Oriako Eskola Kirolaren etetea jakitera eman zen eta bi hilabetez zain egon ostean, beraz, amaitutzat ematen da kirol jardueraren ikasturtea.

Ez ordea, haiek nahiko luketen moduan, "Ez da izan urtea amaitzeko modu onena eta aurreikusitako jardura asko ezin izan ditugu egin, baina segurtasun neurriek hala agintzen dute".

Zalantzak eta izena emateak

Hurrengo ikasturteari begira, ezjakintasuna handia dela nabarmentzen dute Eskola Kiroleko arduradunek eta gainera, oraindik egitasmoa egitea posible izango den ziurra ez dela ere nabarmendu dute.



Otsailean, errugbi saioa izan zuten Eskola Kirolako gaztetxoek. TXINTXARRI

"Foru Aldundia aztertzen ari da zer eta nola egin ahal izango den eta gu, gure aldetik ere aztertzen gabilta". Izan ere, segurtasun neurriak jarraitu nahi baitituzte, haur eta gaztetxoaren osasuna bermatzeko.

Hala ere, 2020-2021 ikasturtean Lasarte-Oriako Eskola Kirola jardura aurrera eramateko lanean hasi dira. "Ez dakigu posible izango den datorren urtean Eskola Kirola egitea, baina guk izen ematea aurrera

eramango dugu, hau modu egokian antolatzen hasi ahal izateko".

Horregatik, egitasmoa arduradunek, iaz bezala, ekainean izen-emateak online egingo direla aurreratu dute. Izena ematearen nondik norakoak ikastetxeetako Guraso Elkarteek eskainiko dituzte datozen asteetan. "Guraso Elkarteak jarriko dira harremanetan gurasoekin izena ematea nola egingo den azalduz".

Horrez gain, 2019-2020 ikasturtean aurrera eraman ezin izan diren hilabeteengatik, Guraso Elkarteak diru kopuru bat itzultzea aztertzen ari direla ere jakitera eman du Eskola Kirola egitasmoak. "Haiek jarriko dira harremanetan gurasoekin eta esango diete zein izango den erabakia eta nola eramango den aurrera".

ZORION AGURRAK



Aiora
Kaixo guapa!!! Ondo pasa zure eguna!!!! Txokolatzeko muxuak etxekoan partetik.



Virginia
Zorionak Loka!!! Egun zoragarria pasa!! Denbora gutxiago falta da denak berriro juntuko!! Musu handi bat eta besarkada pila!!! Kuadrilla osoarena zuretzako!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zorientzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en *txintxarri.eus/zorionagurra* eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *txintxarri@txintxarri.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzea.


Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 15




Larunbata, 16




Igandea, 17




Astelehena, 18




Asteartea, 19



Asteazkena, 20



Osteguna, 23



JAIOTZAK

Lia Maialen Aguilera Saavedra, maiatzaren 3an.

Markel Rizo Nolazco, apirilaren 23an.

Laia Perez Noreña, apirilaren 20an.

Enzo Parada Anton, apirilaren 16an.

Endika Prieto Unanue, apirilaren 11n.

Jon Marcet Diez, apirilaren 10ean.

Igor Seisedos Fuentes, apirilaren 10ean.

Scarlett Bryanna Moratillo Morales, apirilaren 7an.

Malika Mohamed Mahmoud, apirilaren 1ean.

HILDAKOAK

Evaristo Palmerin Ramirez, maiatzaren 10ean

Jose Diaz Lopez, maiatzaren 9an.

Nieves Prieto Paniagua, maiatzaren 7an.

OHARRAK

Maileguak itzultzeko epea luzatu du Udal Liburutegiak, ekainaren 15era arte

Lasarte-Oriako Udal Liburutegiak jakinarazi du beste aste batzuek luzatu duela herritarrek maileguan daukaten materiala bueltatzeko epea. Momentuz, ekainaren 15era arte, astelehenarekin. Informazio gehiagorako, 943 37 61 81 telefonora deitu edo i.urdanpilleta@lasarte-oria.eus helbide elektronikora idatz dezakete herritarrek.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 15 GANDARIAS-URIBE

LARUNBATA, 16 DE MIGUEL

IGANDEA, 17 DE MIGUEL

ASTELEHENA, 18 ORUE

ASTEARTEA, 19 DE MIGUEL

AZTEAZKENA, 20 LASA

OSTEGUNA, 21 GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLEDGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEG: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZAK: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

GUTUNAK

Lasarte-Oriako Udalak eskandaluzko tratua ematen dio 93 urteko aitona bati

Martin Muñoz

Praxi txarren adibidea. Beren jardura aurrera eramateko modu desegokiekin, udaleko politikari eta funtzionario batzuek herri honetako herritarrei laguntzeko borondate falta erakutsi dute. Herri honetako 93 urteko gizon baten kasua azalduko dut. Gaur egun, gizon hori artatu gabe dago, eta udalak ukatu egiten dio erreklamazioa:

1. Kale Nagusia, irailaren 20a, Erdi Aroko azoka, hiru eguneko jaiak. Espazio hori oinezkoentzako gunea izanik, San Pedro elizaren aurrean 93 urteko aitona espaloitik jaisten da lekurik ez duelako. Zoritxarrez, bere oina estali gabeko eta seinaleztatu gabeko hustubide batean sartzen du eta atera ezinik geratzen da, harrapatuta. Idazten duen honek eta beste lekuko batzuek laguntzen diogu. Ondorioz, larrialdietara joan eta ospitaleratzen dute.

2. Jasandako kalte-galerak direla, irailaren 20an erreklamazio-idazki bat aurkeztu genion udalari. Erreklamazioarekin batera, larrialdietako mediku parteak aurkezten dira, bertan gaitzak eta jarraitu beharreko tratamendua jasotzen da.

3. Urtarrilaren 16an, istripua gertatu eta hiru hilabete eta erdi igaro ondoren, udalak ez zuen inolako berririk eman. Beraz, kaltetuak eta lekuko honek alkatearen edo idazkariarekin elkarrizketa bat izatea eskatu genuen, gaia pertsonalki aztertzeko, zentzuzko azalpen bat bilatuz eta konponbide batera iritsi ahal izateko.

4. Hirigintza saileko eta Udaltzaingoko arduradunek hartu gaituzte, eta oso adeitsu entzun eta jaso dituzte gure kezak, ezbeharra gertatu zen guneko argazkiekin dokumentatuta. 2020ko urtarrilaren 16an, Zerbitzu Publikoetako buruak txosten bat egin zuen. Txosten horretan adierazten denez, eremua oinezkoentzat da eta jaiegun horietan itxita edo seinaleztatuta egon behar du.

5. Udalaren erantzukizuna ukatzen duen dekretua jaso eta irakurri ondoren, susmoa dugu ez dutela behar bezala jokatu, txostenak falta baitira eta daudenak ez dira bat etortzen edo kontraesanak dituzte.

6. Alkatearekin eta idazkariarekin berriro elkarrizketa bat eskatuta, ez dute otsailaren 27ra arte ematen. Emaizta: bai alkateak eta bai idazkariak bide guztiak ukatu eta ixten dituzte eta ez dute onartzen kasuari buruzko interesik ez dutela. Are gehiago, une jakin batean, idazkariak, alkatearen baimenarekin, zalantzan jartzen du nire presentzia egun horretan lekuko gisa, eta erruduna 93 urteko aitona izan zitekeela aditzera ematen dute, istripua bere despiste baten ondorioz izan zitekeelako.

7. Lekuko gisa eta herri polit honen herritar gisa, tontotzat tratatua ez izatea nahi dut, are gehiago babesik gabeko eta eskura baliabiderik ez dituzten aitona-amonen kasuan, hauteskunde garaian bakarrik gogoan dituztenak botoa eman diezaieten. Gertatutako ezbeharren lekuko bat naiz, bizilaguna, herritarra, gu tratatzeko modu horrekin kontent ez dagoena. Adinekoak laguntzen ditut, gure gurasoak, aitona-amonak, gure historia, kontzientzia, oroitzapenak, gure bizitzaren eta Lasarte-Oriako herriaren zati bat direlako.

ESKELA

ESKELA



Olatz Illaramendi Ikatzeta



2020ko apirilaren 9an hil zen. 56 urte zituela.

Zure lagunak.
Maitasunez eta esker onez.

ESKELAK JARTZEKO:
Txintxarri erredakzioan
688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

AZOKA TXIKIA

LANA
ESKARIA
Lasarte-Oriako bi neska gazte gara; udaran haurrek zaintzeko prest gaude. Haurrek udaran eskolako errefortzu lanak egin nahi balituzkete ere prest egongo ginateke laguntzeko. Deitu edo bidali whatsapp bat zenbaki hauek: 688 777 280 edo 610 325380.

SALEROSKETAK
SALDU
Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktu. Paseo poltsa opari. Dena 300 euro. 646 824 466.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

GUTUNAK

Pilar Calahorra gogoan


Lasarte-Oriako Bizikidetzeta taldea

Bizitzen ari garen Covid-aren egoera erakusten ari zaigu, elkarbizitzak, bizilagunen alde egitea esan nahi duela, bizilagunek zuzatuz egitea nahi duzuna. Era berean, elkarbizitza baketsua lortu nahi dugun bizilagunak garen aldetik, gure herriko biktima guztiak aintzat hartzeko jarrera izan behar dugu, min bera baita berdinak egiten dituen.

Pilar Calahorra bizilagunak utzi gaitu, 84 urterekin. Pilar larri zauritu zuten, duela 34 urte, 1986ko urriaren 28an, atentatu batean. Atentatu horretan, Rafael Garrido (gobernadore militarra), bere emaztea Daniela eta semea Daniel hil ziren; baita ere Maria Jose Teixeira, momentu horretan inguru hartatik igaro zena. Pilarrek hainbat operazio jasan zituen eta makuluak behar izan zituen.

Berriki bisitatu genuenean, emakume maitagarri eta indartsu batekin topatu ginen. Pilarrek atentatuaren lekutik gertu egiten zuen lan, mediku batentzako. Esan zigunez, zorionez, egun hartan ez zen Bretxara joan zaintzen zuen haurrekin; horixe zen gehien lasaitzen zuena. Amorruta eta gorrotorik gabe, etsipenez eta sendotasunez onartu zuen bizitza egokitu zitzaiona. Goian Bego.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:30	11:40	11:45	11:50
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

- 12 plaza erabilgarri izango ditu.
- Segurtasun tarte mantendu beharko da.
- Autobus barruan nahitaezkoa izango da maskara, eta erabiltzaile bakoitzak bera eraman beharko du
- Txartelarekin bakarrik ordaindu ahal izango dute

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Urtebetetze festa ahaztezina

36. urtebetetzean, sorpresa

Ez du berehalakoan ahaztuko 2020ko maiatzaren 5a Alberto Valdivia Leiton herritarrak. 36 urte bete zituen egun horretan, eta gogotik ospatu, familiak prestatutako urtebetetze festa sorpresaz gozatzuz: koloretako globoak, tarta, zorion abestiak – Ola kaleko bizilagun ugari animatu ziren–, auzotarren txaloak, etxeko maitasuna... eta Gurutze Gorriko lau anbulantzia, sirena eta guzti. Txiki-txikia zenetik maite ditu Albertok ibilgailuak, eta gertutik ezagutu ahal izan zituen bere urtebetetze egunean, betidanik amestu izan zuen hori betez. Covid-19ak gure egunerokoa goitik behera aldatu duen honetan, posible da oraindik gertuko egun handiak ederki ospatzea eta tarte atsegin bat igarotzea, familia eta lagunartean.



Anbulantzien sirenak jotzen ikasi zuen Albertok. TXINTXARRI



Txiki-txikitatik maite izan ditu Albertok anbulantziak eta ibilgailuak; amets eder bat bete zuen bere urtebetetze egunean. TXINTXARRI



Familiak sorpresa ederra prestatu zion Albertori, Gurutze Gorriarekin batera. TXINTXARRI



Alberto Valdivia Leiton herritarrak 36 kandela itzali zituen maiatzaren 5ean, sorpresa ederra jasota. TXINTXARRI

Gaurko zenbakia, paperean ere bai

Gure banatzaile finak osasun berme guztiakin banatzen ari dira 1502. zenbakiko aleak zuen etxeetako postontzietan. Bi hilabete hauetan ez gara geldirik egon, eta jarraitu dugu herriari buruz informatzen, gure webgunean: inoizko datu onenak lortzen ari gara

Txintxarri

TXINTXARRI aldizkariaren 1502. zenbakia, egun eta aste hauetan mimos prestatu duguna, zuen etxeetako postontzian jasoko duzue gaur, maiatzak 15, ostiralez. Konfinamendua apurka-apurka arintzen ari den honetan eta kalera irteten hasi garen honetan, kontrako bidea hartuko dugu, ia bi hilabeteko etenaldiaren ostean: zuen etxeetara iritsiko gara paperean ere bai, egoerak eskatzen dituen baldintza eta berme guztiakin. Gure banatzaile finak arduratuko dira horretaz.

Pasa dira ia bi hilabete TXINTXARRI-ko lantaldeak erabaki zuenetik eten egingo zuela



Zuen etxeetako postontzian jasoko duzue aste honetako zenbakia. TXINTXARRI

paperezko produkzioa, koronabirusak eragindako egoera tarteko. 62 egun beranduago, konfinamendua ez da bukatu oraindik, egia da, baina hasi da apurka-apurka arintzen: Lehen fase murriztu bati ekin diogu. Kalera irteten hasi gara kirola egitera eta paseatzera; komertzio txikiak eta taberna batzuk hasi dira pertsianak igotzen; kale eta plazetan entzuten dira berriro haurren irribarre alaiak, adineko pertsonen begiradapean. Kontrako bidea egin, eta zuen etxeetara sartuko gara gu, asko hausnartu eta gero. Uste dugu gai garela urrats hori egiteko.

Inflexio puntu bat

Covid-19ak aldatu du gure egunerokoa goitik behera, eta baita TXINTXARRI-ren lan egiteko modua eta erritmoak ere, eta gure onena ematen saiatzen ari gara: Covid-19ari buruzko datuak egunero eskaintzen dizkizuegu, Lasarte-Oriakoei arreta berezia jarrita; herritarrekin eta Ttakuneko lankideekin elkarlanean, sortu ditugu ikus-entzunezkoak zuen etxealdia arintze aldera; bilatu eta probatu

ditugu komunikatzeko eta herritarrekin harremantzeko formula berriak; Haurraren Eguna ospatzen lagundu diegu milaka herritarrei. Datuek berresten dituzte hitz hauek: martxoan eta apirilean bikoiztu egin dugu txintxarri.eus webgunearen trafikoa, euskarazko hedabide guztiak –tokikoek bereziki– bezala. Krisi garaiotan ere gugan sinesteagatik, eskerrik asko, irakurle.

Eskerrak ematen hasita, ezin ahaztu urteotan guztietan gure proiektuarengan sinetsi dutenei, herriko denda eta komertzio txikiei bereziki. Garai zailak bizitzen ari garela kontuan hartuta, ahal duzuen heinean gugan sinesten jarraituko duzelakoan, animo guztioi. Aterako gara ataka zail eta berri honetatik ere.

Behar eta nahi izan duzuen guztietan, zuekin eta zuentzat egoten jarraitu dugu. Ez betiko euskarrien bidez azkenaldian, baina bai betiko gogo, ilusio eta konpromiso. Koronabirusaren garaian, Lasarte-Oriari buruz informatzen jarraitu dugu, gertutasunez eta euskaraz.

Konfinamenduan pantailak gehiago erabili dira

%10eko deskontua argi urdinetik babesteko lenteetan

+

Montura doan



Baliagarria 2020/05/31 arte. Konsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

**ZABALIK GAUDE
ESKATU HITZORDUA**

Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiopticas.com   



**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

Zatoz gure erakusketa berria ikustera!
Erosketak on-line eta whatsapp bidez egin ditzakezu

600 857 586 | www.electricidadarregui.com | Kale Nagusia 39 LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel. 943 37 25 21

Segurtasun guztiarekin!



T21